



ZINEMAK HAMABI

Euskal Film Laburren Jaialdia



12. HUHEZINEMA

2019ko apirilaren 2tik 5era

Aretxabaleta



SARIAK

SAIL OFIZIALA

GOIENA SARIA (1) : **1.000€**

VERTIGO SARIA (2): **400€**

IKUSLEEN SARIA: **300€**

MU-KO IKASLEEN SAILA

FIKZIO ONENAREN SARIA: **300 €**

DOKUMENTAL ONENAREN SARIA: **300 €**

ARGAZKI ONENAREN SARIA: **1500€**TAN BALORATUTAKO
KAMERA EKIPIAMENDUA (OGEITA4)

IKUSLEEN SARIA: **100€**

KUTIXI SAILA

KUTIXI SARIA (3): **400€**

IKUSLEEN SARIA: **100€**

MUNDUKIDE SARIA: HIRU SAILETAN AURKEZTUTAKO FILM LABURREN ARTEAN
GIZA ESKUBIDEAK ETA JUSTIZIA SOZIALAREN GAIAK EGOKIEN TXERTATUTA
DITUEN FILM LABUR ONENAK JASOKO DU. **700€**

(1) GOIENA SARIA EPAIMAHAI OFIZIALAK EMANGO DIO EUSKARAZKO FILM ONENARI.

(2) VERTIGO SARIA: DIRULAGUNTZA PUBLIKORIK GABE EKOIZTUTAKO ETA BANATUTAKO
FILM ONENARI EMANGO DIO MU-KO IKASLEEK OSATUTAKO EPAIMAHAIK

(3) EPAIMAHAI OFIZIALAK EMAGO DU SARIA.GASTRONOMIA HOBE JORRATZEN DUEN FILMARI.

XII. HUHEZINEMA

Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia 2008. Urtean sortu zuten Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) fakultateko Komunikazio gunean. Ikasketen barneko zerbait denez, Ikus-entzunezko Komunikazio graduako 4. Mailako ikasleok egiazko film laburren jaialdi bat antolatu eta gauzatzeko aukera dugu. Graduako beste edozein sekuentzia edo ikasgairen garrantzia bera du guretzat, baina era berean berezia da: aukera dugu graduari ikasitakoa praktikara eraman eta lan munduarekin eta profesionalekin harremana izateko.

Huhezinema jaialdiaren 12. edizioa egingo da aurten; eta urtero bezala, talde antolatzaile berria du. Oraingo honetan, 16 ikasle ibiliko dira jaialdiaren antolakuntzan Iban Del Campo irakaslearen gidaritzapean. Aurtengo edizioan ikasle hauek arituko dira lanean: Leire Zarate, Irati Vergara, Haizea Azpilikueta, Eneko Zuberogitia, Ane Zuazubiskar, Julen Yusta, Irati Gonzalez, Pablo Oteiza, Asier Ugarte, Andoni Marquinez, Gari Suarez, Unai Portilla, Malen Iruretagoiena, Egoitz D. Ibargoitia, Irati Briñas eta Itsaso Garmendia.



EGITARAUA

2

16:00 NEST Film, Nazioarteko Zinema
Ikasleen Topaketa
17:15 'Jainkoak ez dit barkatzen'
(Josu Martinez, 60')

3

9:00-13:00 MARTXAN! Ekoizpena
9:00 Tutoretzak ikasleekin
11:00 Masterclass-ak
16:30 Hitzaldia "Agur Etxebeste!"
(Asier Altuna, Telmo Esnal)
18:30 Karakterizazio efektu bereziak (Bacon FX)

4

9:00-13:00 MARTXAN! Banaketa
9:00 Tutoretzak ikasleekin
11:00 Masterclass-ak
16:00 KUTIXI SAILA
17:00 MU SAILA

5

16:30 SAIL OFIZIALA
20:00 Sari banaketa
21:00 Luntxa
22:30 Kontzertua

Ekitaldi guztiak doakoak dira. Martxan saila Huheziko Aretxabaletako fakultateko aretoan izango da, gainerakoa Arkupe Aretoan.

NEST FILM, NAZIOARTEKO ZINEMA IKASLEEN TOPAKETA

ORONA SARIAREN IRABAZLEA:



THE GIRL WITH TWO HEADS

(Betzabé García)

Erresuma Batua

Iraupena: 13'

Annek bere burua grabatzen du mugikorrarekin eta ispiluan bere gorputza aztertzen du; haren ama Céline ere, ispiluan bere gorputzari begira ari da. Emakumeen gorputzen edertasunari eta kanonei buruzko aurkako idealak dituzte. Amaren, alabaren eta amaren mutil-lagunaren artean gatazka sortuko da jakiten dutenean Annek bideo bat argitaratuko duela sare sozialetan: borroka klubean toplessean entrenatzen agertzen da bideoan.

HAUTATUAK IZAN DIREN BESTE FILM BATZUK:



COUNT YOUR CURSES.

(Lòrene Yavo)

Belgika

Iraupena: 8'

EL VERANO DEL LEÓN ELÉCTRICO.

(Diego Céspedes)

Txile

Iraupena: 20'



FILM EMANALDIA

JAINKOAK EZ DIT BARKATZEN

(Josu Martinez)

Iraupena: 60'

Lezo Urreiztieta XVI. mendeko pirata bat zen, okerrez 1907. urtean jaioa. Bere bizia arriskuan jarri, eta ehunka pertsonena salbatu zuen; Euskal Herriaren askatasuna negoziatu zuen atzerriar gobernuekin; Bilbon armaz betetako 17 itsasontzi sartu zituen Gerra Zibilean; Franco akabatzean egon zen... Hura hil eta berrogei urtera, Martin Ugalde idazlearen magnetofonoak haren istorio sinestezina ezagutaraziko digu, protagonistaren beraren ahotsaren bitartez. Elkarrekin 1975. eta 1978. urteen artean izandako elkarriketa batzuk harturik abiaburu, film honek argitara aterako du XX. mendeko euskal historian funtsezkoa izan zen norbaiten lekukotza.



HITZALDIA



AGUR ETXEBESTE!

Zinemagintza eta komunikazioa

Aupa Etxebeste! film arrakastatsuen ondoren, Agur Etxebeste! filma abian da. Filmaren aurrerapena egingo digute zuzendariek. Prozesuaren nondik norakoak ere azalduko dituzte eta galderak egiteko aukera izango dute ikasleek. Haiekin batera, TheNiu komunikazio agentziako ordezkari batek ere parte hartuko du saioan, Agur Etxebeste! pelikularen komunikazioa nola kudeatzen ari diren azaltzeko.

KARAKTERIZAZIO EFEKTU BEREZIAK (BACON FX)

Huhezinemaren hamabigarren edizioan ere kaleak hartuko ditugu, eta aretxabaletarrak zinemagintza barrutik bizitzera gonbidatuko ditugu. Aurtengoan, pertsonaiak gorpuzteko behar-beharrezkoak diren elementuak izango dira aurtengo kaleko ekitaldiaren ardatza: protesiak, makillajea, arropak...

Efektu berezietan aritzen diren adituak etorriko dira Huhezinemako bigarren egunean, eta protesiak nola egiten diren eta pertsonaiak fisikoki nola sortzen diren erakutsiko digute.

Eta noski, herritarrek ere aukera izango dute protesiak probatzeko. Bilboko BaconFX enpresako kideak arduratuko dira aurtengo kaleko ekitaldiaz; zinemarako zein telebista eta antzerkirako lanean aritzen dira, fantasiatzko eta beldurrezko obretan.



Aurtengo Huhezinema hainbat berrikuntzekin dator. Lehenengo aldiz jaialdia lau egunetan zehar ospatuko da. Egutegi aldaketa horrek badauka arrazoi nagusi bat, izan ere, aurten, sail berri bat gehituko zaio egitarauari. Martxan! deituriko atal berria, unibertsitateko ikasleei zuzenduta dagoena.

Ikasleen eta sektoreko profesionalen arteko harremanak indartzeko, tutoretza formatuko bilera pertsonalizatuak eskainiko dira proiektuen bat martxan daukaten ikasleentzat. Bertan, haien proiektuen inguruko zalantzak zein galderak partekatu ahalko dituzte, profesionalen aholkularitza jasoz. Tutoretzen ondoren, profesionalak masterclass-ak eskainiko dituzte unibertsitateko ikasleentzat.

Bi egunez ospatuko da atala eta egun bakoitza zinemaren arlo ezberdin bati zuzenduta egongo da. Lehenengo egunean, ekoizpena eta gidoigintza landuko dira eta bigarreanean aldiz, banaketa.



**HUHEZINEMA
MARTXAN!**

EKOIZPENA

FINA SALEGI

Film luze zein laburren ekoizpen lanak egin ditu bere ibilbide luzean, baita prestaketa, banaketa eta kontrol lanak ere. Horrez gain, publizitatean eta spot zein dokumentaletan ere lan egin du, eta irakasle izan da besteak beste EHUn eta Zinelekun.



MIROKUTANA

Zinema, telebista eta iragarkien munduan ibilbide luzea dute. Haien desira eta xedea “maite duten ogibide honetan” artistikoki eta pertsonalki haztea da, proiektu pertsonalak eta beste batzuen beharrak modu profesionalean gauzatzen dituzten bitartean.

BANAKETA

AITOR ARENAS SUSO

Hainbat film laburren zuzendari eta produktorea. Banatu Filmak enpresaren sortzaileetako bat eta zuzendari nagusia da.



LEIRE LARDIZABAL AZURMENDI

AEKn euskara irakasle lanetan ari da duela urte asko, eta Euskaltzaleen Topaguneko langilea da, euskarazko ikus-entzunezkoen sormena sustatzeko proiektuetan murgilduta. Laburbira, Benito Ansola beka eta Durangoko Azokako Irudienea kudeatzen ditu besteak beste.

SAIL OFIZIALA



GOGOR ATZEA

(Oier Fuentes)

Iraupena: 7'

91 urteko amamak bilobari 6 ordu pasatan esan eta isilduak, 6 minutu pasako lanean esan eta isilduak daude hemen. Bizipenak, oroitzapenak, gogoan ditugunak, bortxan isilduak edo nahi gabe ahaztutakoak... denak dira gure memoria, hauskorra bezain apurtezina.

SHELL PHONE

(Miren Mujika)

Iraupena: 10'

Mertxeren seme bakarrak pisu eroso eta moderno bat ipintzen dio amari. Teknologia berriek amaren beharrei erantzungo dielakotan, Mertxe domotikarekin gaizki moldatzen hasten da, baina semea jada ez dago laguntzeko eskuragai.



ZAIN

(Pello Gutierrez)

Iraupena: 13'

«Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea nora ote dijoan denbora aldakorrak daraman bidea, daraman bidea...»



TXIMELETAREN HEGALDIA

(Amaia San Sebastian)

Iraupena: 5'

Emakume bat bere kontzientziarekin borrokatzen da arropa denda batean: ezin du dagoeneko erosketa ekintza errugabe bat bezala bizi, kapitalismo globalizatuaren sarearen beste korapilo bat bezala baizik: ondorioen gaineko informazioa ematen duen globalizazio bera.

UN AGUJERO EN EL MURO

(Carlos Moure)

Iraupena: 20'

Emakume bat, erditzeko zorian. Erizain bat, bidezkoa ez den agindu bati jaramonik egiten ez diona. Langile bat, bere eskubideak aldarrikatzen dituen. Ume bat, bizi den lekuko gizartea ezagutzen hasten dena. Irakasle bat, bere identitateagatik jazarria. Gazte bat, bere aurka duen mundu batean. Sei istorio, Mendebaldeko Saharako okupatutako lurretan sahararren egunerokoa erakusten digutenak.



AMA

(Josu Martinez)

Iraupena: 9'

1915eko uda. Baxenabarreko Baigorri herriko auzo urrun batean, emakume bat gutun baten esperoan bizi da.

MINUTUAK

(Mikel Uralde Arrue)

Iraupena: 10'

Bizi guztia pasatzen dugu itxaroan. Askotan gauza onak espero ditugu, besteetan, ordea, dena okerrera doa.





ASFIXIA

(Leire Egaña)

Iraupena: 5'

Arrantzale batek urertzean orainaldian oihartzun egiten duen arrain batekin amets egiten du.

AGNÈS

(Irati Elortondo)

Iraupena: 8'

Agnès, mutil batekin gelditzen da sexu harremanak edukitzeko. Baina ez du esperientziaz gozatuko.



ANCORA LUCCIOLE

(Maria Florza)

Iraupena: 15'

1972an, Pier Paolo Pasolinik ipurtargien desagertzeaz idatzi zuen bere artikulua ezagunenetako batean. Hilabete gutxi buruan, hil egin zuten. Orduz geroztik, ipurtargiek desagertzen jarraitu dute. Baina oraindik bada gogoratzen dituenik.

MU IKASLEEN SAILA



BAJO EL TECHO DE BARRO

(Mariana Ramos León)

Iraupena: 15'

Zaborra bizitzat dugun mundu honetan, hondakinik sortu gabe bizitzea modernitateta iraintzea da. Margaritak ezarritako bizimodua utzi eta bide propioa urratzeari ekingo dio Queretaroko Sierra Gordan. Birziklatutako materialez eta buztinez egindako eko-etxeak diseinatu, eraiki eta mantentzen ditu, planetari eta haren komunitateari laguntzeko.

PELOTARI

(Julen Higuera)

Iraupena: 2'

Lagun talde bat asteburu pasa doa baserri batera.



OTALORA 27

(Markel Bazanbide Dominguez)

Iraupena: 16'

Otalora 27, Aretxabaletako sarreran kokatzen den eraikuntza baten helbidea da. Eraikuntza honek denboran zehar hainbat bizipen jaso ditu, erabilera ezberdin eman baitira honen barruan, eta jende asko pasa da bertatik. Gaur egun zalantza handia dago eraikuntza honen ingurua, ez baitago egoera onean.

ATABALA ETA EURIA

(Egoitz D. Ibargoitia)

Iraupena: 13'

Atabala eta Euria, Joseba Sarrionandiaren liburuan oinarritutako laburra da. Istorio fantastiko bat da, non amona eta iloba baten arteko harremana azaltzen digu, eta nola Atabalak haien bizitzak aldatuko dituen.



HAKIMA FLISSI-YOU SAY

(Eider Uribarri, Maider Arrotxa, Andrea Aranburu)

Iraupena: 4'

Hakima Flissi artistaren You Say abestiarekin egindako bideoklipa.

MIN EZKUTUAK

(Ane Garcia)

Iraupena: 15'

LGBT komunitateari buruzko dokumentala da. Bertan haien egoera erakutsi nahi genuen. Komunitate horretako pertsona ezberdinek hitz egin dute eta haien ikuspuntua eman digute. Bilbon normaltasunez tratatzen da? Zein da familiartekoen erreakzioa? Egoera aldatu al da? Komunitate baten barruan egotea beharrezkoa da?



TAUPADAK

(Nerea Aginagalde, Leire Altuna, Mikel Carrillo, Iker Larrañaga, Eider Moncayola)

Iraupena: 12'

Ehiza munduaren bi aldeak, ehiztariak eta animalien babeserako taldeak, parez pare jartzen dituen dokumentala.

MUGAK HAUTSIZ

(Asier Toledo, Xabier Martin)

Iraupena: 11'

Azken hilabetetan Irungo mugako egoeraren gorabeherak direla eta, egoera hori lehen pertsonan bizi dutenen iritziak inondik ageri ez dira. Bada errealitatea erakusten diguten bezalakoa? Zerbait egiten ari dira agintariak?



ERROAK

(Ane Zuazubiskar Iñarra)

Iraupena: 9'

Duela urte batzuk bete zituen Maddik hogeita hamar. Erabakitzen ari dira ingurukoak, eta erabakitzeke gero eta denbora gutxiago uzten diote Maddiri. Eta hark ez du nahi, edo ez daki, edo ez du erabaki nahi.

STENDHAL

(Egoitz D. Ibargoitia)

Iraupena: 16

Artemisiak, Stendhal Sindromea sufritu eta gero, itsu geratu da. Arte irakaslea izan zen, artelanak maite ditu, eta orain artea ikusteko beste moduak dauzka. Nahiz eta ez ikusi, margotzen du, eta artelan asko gogoratzen ditu. Orain, blokeo artistiko batean dago, eta ezin du lan gehiago egin. Frida, bere ikasle ohia eta orain bere maitalea, Artemisiaren inspirazioa izango da artelan berriak sortzeko. Edonon dago artea eta kolorea, baina Artemisiak ezin du ikusi.



KUTIXI SAILA



KAFE-TE-GIA
(Egoitz D. Ibargoitia)



EIDERREN SALTSAK
(Ainhoa Lopez de Arregui, Xabier Perez eta Eider Uribarri)



NAEDLAKUS
(Haizea Azpilikueta, Irati Vergara eta Leire Zarate)



THE ARTIST
(José Luis Gómez)



URTEA JOAN DA
(Egoitz D. Ibargoitia)



5 SENSES
(Irati Cledú, Edurne Arroyo, Maddalen Bastarrrika eta Irati Eizagirre)



ZURE ESKU

(Andrea Aramburu)



GASTRONOMIAREN LITERATURA

(Eneko Fernandez de Miguel,
Jokin Arrizabalaga Baglietto eta
Julen Ansa Isasa)



OTORDUA

(Urko Sarobe, Aitor Garciandia eta
Martin Perez)



NEURRIZUKRE

(Garazi Bizente)



BABARRUN TXAPELKETA

(Andoni Martínez de Madina eta
Julen de la Serna)



ZERK BEREIZTEN GAITU?

(Nekane Jubera, Nagore Rodriguez eta
Anne Dobarán)



ZER GARA, JATEN DUGUNA EZ BADA?

(Izaro Altzibar, Irati Egibar, Julene Etxauri)



TXOKO

(Ane Lizarraga, Jon Zuazubiscar eta Xabier Vallina)



TALOA

(Sara Alonso eta Ekhiñe Aizkorbe)



ETXETIK ETXEKOENTZAT

(Irati Cledú Axpe)



POBRE ABERATSAK

(Mikel Irazusta Irazusta)



SAGAR + ARDO + - TEGI

(Jon Flores, Nerea Alonso, Nerea Fajarnés)



GOSEKILA

(Unai Garcia, Mikel Herce eta Unai Zabala)



FFFFUUUARGIÑANO

(Malen Iruretagoiena)

ERPAIMAHIA

IRATXE FRESNEDA

Zinemagile, gidoilari, ikus-entzunezkoetan doktore eta irakaslea EHUUn. Eskandinaviako zinemagintzan aditua da, eta nazioarteko hainbat ikerketa-proiektuetan parte hartu du. Irrintziaren oihartzunak aurkeztu zuen 2016an Donostiako Zinemaldian. 2018an Lurralde hotzak sormenezko dokumentala zuzendu du, irudi zinematografikoaren estatusaren inguruan hausnartzen duena.



NATXO RODRIGUEZ

Artista, EHUKo kulturgintzako zuzendaria, Arte Ederren Fakultateko Arte eta Teknologia sailaren irakaslea eta EHUKo doktore “Artes visuales y cultura libre. Una aproximación copyleft al arte contemporáneo” tesiarekin. Hainbat kolektibo artistikoetako partaide izan da eta beste hainbat lan ere publikatu ditu; horien artean, 2017an argitaratutako “Euskal Zinea Bideo Bilera. 40 urte zinema eta euskara bultzatzen” lana.



IZASKUN ARANDIA

Gidoilaria eta ekoizlea. IZAR Films ekoiztetxea sortu zuen 2011an eta Agur Esatea, Muga Deitzen da Pausoa eta Bihar Dok Amairu bezalako lanen ekoizpenean parte hartu du. Haez gain, 9 film labur eta 2 webserie ekoiztu ditu eta bere ekoizpenetan beti ematen dio berebiziko garrantzia genero berdintasunari.(H)emen Ikusentzunezko Emakumeen Elkartearen sortzaile eta Lehendakaria izan da eta egun My Way Out dokumentalaren zuzendaritzan murgilduta dago.



ANTOLATZAILEA:



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**

BABESLE NAGUSIAK:



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



Aretxabaletako
Udala

KOLABORATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

